



Argiñeta nekropolia (Elorrio)

Elorrioko kanpoaldera dago Argiñeta hileta multzoa, San Adrian basilizaren aurrean, hogeitahilobi eta bost hilarritz osaturik. Pieza hauek inguruko hainbat auzoen nekropolietan (Mendraka, Miota, Berrio) erabiltzeko eraiki ziren Goi Erdi Aroan, baina XIX. mendean bildu ziren, egun ikusten ahal dugun ingurune deigarri eta erromantikoa sortuz. Bere ezaugarrietan Euskal herriko multzorik inportanteena da, bai bere elementuen kantitate eta kalitatearen aldetik, bai eta horietako batzuen kronologia urrunaren aldetik (VII-IX. gizaldiak).

Hilobiak Oiz mendiko harrobietako harearritzkoak dira. Bi parte dituzte: kutxa, pieza batekoa, gorputz formaduna, eta estalia, teilatu gisako triangelu sekzioa duena. Neurri desberdinetakoak dira, eta, hainbat kasutan, elementu biak ez dira ondo etortzen.

Interesgarrienak ezkerreko lerroaldearen bigarren eta hirugarrena dira, beren estalkietan hileta inskripzioak irakur baitaitezke, Bizkaiko gune kristauen presentziaren lekukotasun idatzi zaharrenak direnak.

Bigarrenaren inskripzioa hauxe irakurtzen da: "*Obiit F(a)m(u)(u)s d(e)i Paterna XVII k(l)ds Augustas*" (Paterna, Jainkoaren zerbitzaria, hil zen Abuztuko Kalenden 17an).



Hirugarrenaren inskripzioak, bere aldetik, honela dio: "*In De(i) Niomine Momus in copore bibentem lin era DCCCCXXI mi fecit/ ic dormit*" (Jainkoaren izenean, gorputzaren bizialdian Momus zena/921 aroan (83 urtea) egin ninduen/ Lo datza hemen).

Hilarriak ere Oizeko harearritz landu ziren. Lau biribilak dira eta bat hirukia. Aurrenekoetan lepo estu gainera buru biribil handiak nabarmentzen dira, beraien giza formaren itxura agerian jarrit. Aurkeztutako ikonografia astral izaerakoa da batez ere (zirkulu zentrokideak, luzapen erradialak, gurutze formakoak, orla hagindunak, eta abar.). Tradizio luzeko ondarearen motiboak berregiten dituzte, nahiz eta Pirinio iparreko buru eskemen arabera interpretatuta, lurralde honetan VI. gizaldiaren amaiera aldera arte ezezagunak zirenak.

Arginetaren oraingo irudia guztiz desberdina da Goi Erdi Aroan zuenaren aldia, garai hartan Durango aldeko beste hainbeste bezala, eliza txiki baten inguruko nekropolia baitzen, kalitate desberdinetako lurreratzeekin, komunitatearen partaide desberdinen itzal sozialari eta hierarkiari zegokienez. Izan ere, maila behekoenak lurtean egindako zuloetan lurperatzen ziren, horien lekukotasunak baitira oraindik, aztertu eta interpretatzeko zain direnak.

Testua: Fernando Velazquez.



Argiñeta nekropolia

Elorrio. (Zenita auzoa. San Adrian basilizaren ondoan dago; Elorrioko plazatik abiatuta, Mendraka bidean).

Bisitak egiteko ordutegia:

Ez dago itxita. Beraz, eguneko edozein ordutan bisita daiteke.

Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

(Elorrio)

- Santo Tomas nekropolia eta basiliza. (Mendraka).
- Memaia elizako (X. m.) sagaratze inskripzioa. San Roke basiliza. (Urkizuaran auzoa).
- Igokundearen Amaren basiliza eta hilobia. (Gatzeta).
- San Bartolomeren basiliza eta nekropolia. (Miota).
- Santa Eufemia basiliza eta hilarria (X. m.). (Arauna).